



Euskadiko Familia eta Haurtzaroaren inbertsiorako estrategia

2018ko otsailak 9
Bizkaia Aretoa
BILBO

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Aurkezpena

Eusko Jurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu du familia eta haurtzaroaren inbertsiorako instituzioen arteko hitzarmen baten sinadura, eta horren bitartez nahi da egituratu koordinatutako politiken pakete bat izaera estrukturala duten ondorengo bi fenomeno hauei erantzuteko:

- Jaiotzen tasa baxua eta, gehienbat, familia-proiektua hasteko eta desiratzen duten seme-alaben zenbatekoa izatea zailtzen duten traben iraunkortasuna.
- Seme-alabak dituzten familien zailtasun ekonomiko handienak –horren adierazle garrantzitsuenetako bat da haurren pobrezia hazkuntza– eta desberdintasunen belaunaldi arteko transmisioa hausteko gero eta gehiago hazten diren zailtasunak.

Hitzarmen horrek jasotzen du familia eta haurtzaroari eragiten dieten politika horiek guztiak kontuan hartuko dituen estrategia garatzeko euskal instituzio nagusien konpromisoa: seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoak, kontziliazio erantzunkide eta ordutegiaren arrazionalizazio politikak, haurtzaroarekiko arreta, hezkuntzaren ekitatea, gurasotasun positiboa,

babesgabatasuna edo horren arriskuan dagoen haurtzaroarekiko gizarte-zerbitzuen hornikuntza, aztura osasungarrien sustapena, gizarte-hezkuntzako zerbitzu, sare eta ekipamenduen garapena, etab.

Hitzarmenak biltzen dituen konpromisoak gauzatuko dira plan eta arautegiaren garapen desberdinen bitartez eta, oso bereziki, EAEko Familien Sostengurako Institutuen arteko IV. Planean, 2018ko lehenengo seihilekoan landuko dena.

Plan honetako oinarriak ezartzeko asmoz, Eusko Jurlaritzako Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritzak jardunaldi hauek antolatu ditu, eta honen bitartez familia eta haurtzaroaren premia eta aurre egiteko modurik egokien inguruko gogoetan sakondu nahi da.

Jardunaldia bideratzen da familia eta haurtzaroarentzako zerbitzuen arloan lan egiten duten pertsona eta erakunde horiei guztiei, hau da, Hirugarren Sektoreko erakundeak, haurtzaroaren arloan lan egiten duten gizarte-zerbitzuetako profesionalak, hezkuntza, gizarte-hezkuntza edo osasunaren arloetako profesionalak, etab.



Egitaraua

- 9:30-10:00** **Aurkezpena**
BEATRIZ ARTOLAZABAL. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburua. Eusko Jaurlaritz
- 10:00-10:45** **Prestazio ekonomikoak eta haur-pobreziaren prebentzioa**
OLGA CANTÓ. Universidad de Alcalá de Henares
- 10:45-11:30** **Hezkuntza inklusibo batera aurrera egiten: erronka eta premiak**
LUCAS GORTAZAR. Euskal Herriko Unibertsitatea
- 11:30-12:00** **Atsedendia**
- 12:00-12:45** **Kontziliazio-politikak: egungo egoera eta kontziliazio erantzukidearen bitartezko aurrerabidea egiteko aukerak**
IRENE LAPUERTA. Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- 12:45-13:30** **Kalteberatasun egoeran dagoen haurtzaroaren arreta eta gizarte-hezkuntzaren eskuartzea**
JORDI LONGAS. Universidad Ramon Llull / Caixa Pro-Infancia
- 15:00-17:30** **Mahaingurua**
Familiaren sostengurako politikak Pirinio Atlantikoko Departamenduan: ezaugarri nagusiak.
CLAIRE BILLARD. Haurtzaro, Familia eta Osasun Publikorako Saila. Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorra
PAOLA PARRAVANO. Haurtzaroaren Babesari buruzko Departamentu Behatokia
- Euskadiko gazteen emantzipazioaren azterketa bat.**
Gazteen Euskal Behatokia
- otik 3rako arreta Euskadin: Haurreskolak partzuergoaren rola.**
MAITE LARRAÑAGA ORBEA. Consorcio Haurreskolak
- Gurasotasun positiboko programak Euskadin.**
ENRIQUE ARRANZ. Euskal Herriko Unibertsitatea
- Familia- eta haurtzaro-politikak tokiko testuinguruan: Gasteizko esperientzia.**
LOLI GARCÍA. Gasteizko Udala
- 17:30-18:00** **Amaiera**
LIDE AMILIBIA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saiburuordea. Eusko Jaurlaritz



Jardunaldira etortzea doan da.
Plaza-kopurua mugatua denez,
ezinbestekoa da aurretik
izena ematea
jornadasfamiliainfancia.sis.net
webgunean



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

